

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDERAKO **2020-2024 HAUTAGAITZA**

—

2020ko Maiatzaren 27an egingo den Batzar Orokorrerako dokumentua
EUSKARAZKO DOKUMENTUA

Gure hautagaitza

Eguno Zuzendaritza Batzordeko kideok hautagaitza aurkeztuko dugu maiatzaren 27ko Batzar Nagusian. Horretarako, honako pertsona hauek proposatzen ditugu:

1. Laiene Anabitarte González
2. Itsaso Andueza Fernández
3. Javier Cantera Depetris
4. Eneko Etxeberria Bereziartua
5. Virginia García Pena
6. Lourdes Herrasti Erlogorri
7. Jose Angel Irigarai Imaz
8. Paul Mínguez-Olaondo
9. Jokin Otamendi Azurmendi
10. Rafael Zubiria Mujika

Kontutan izanda:

- Aipatutako zuzendaritza adin desberdinetako pertsonak, bazkide eta bolondresek osatua behar duela izan eta independenteak izan behar direla administratibotik edota beste edozein erakunde edo interes-taldetatik.
- Proiektuari hobekuntza ekar diezaioketen arlo eta espezialitateetan burutzen dugula gure ibilbide/jarduera profesionala egunerokoan eta Aranzadi Zientzia Elkartearen proiektu iraunkor bihurtarazteko erronka dugula.

Besteak beste, nahi duguna:

- Azken hilabeteetan egindako Plan Estrategikoa abian jartzea.

Plan estrategikoa diseinatu ondoren (2019ko urritik 2020ko urtarrilera), Covid 19 pandemia agertu da. Aurrekaririk gabeko krisi sozio-sanitarioa izanik, lurraldearen ekonomiari eta gure gizartearen iraunkortasunari eragingo dio. Gure ustez orain da unea, hobekuntza-prozesuak, kudeaketa, ikerketa eta dibulgazio proiektu eta produktu berriak abian jartzeko eta teknologia gure eguneroko lanean integratzeko, gure proiektuak modu deszentralizatuan garatzeko aukera izan dezan.

Hau da, pandemia garaia eman diezazkiguen aukerak aprobetxatzeko gai izan behar dugu gure eredu sozial eta korporatiboa hobetzeko, eta erreferente zientifiko independente eta prestigioduna izaten jarraitzeko; eta beraz, bazkideen arteko eta, oro har, gizartearekiko komunikazioa eta partaidetza-bideak indartzeko.

Aukera ezinhobea da gizarteak (administrazioaren bidez edota enpresen eta bestelako elkarten bidez) eskatzen dituen eta finantzatu nahi dituen proiektuak bilatu eta jorratzeko. Eta hau da unea: gizarte-beharrak ezerezean gera daitezkeela dirudienean.

Beraz, egungo egoerarekin jabetuta eta etorri daitezken zailtasunak ikusita, boluntariotzan eta profesionaltasunean oinarritzen den eta Aranzadi Zientzia Elkartearen iraunkortasuna erraztuko duen kudeaketa bat bultzatzeko gaitasun eta esperientzia duen lan taldea osatu dugu.

Gure programaren puntu nagusiak honako hauek dira:

- 01.** Gobernantza instituzionala eta kudeaketa-eredu profesionalizatuagoa garatzea, Aranzadi proiektuaren bideragarritasuna eta epe luzearako jarraipena bermatzeko.
- 02.** Iraunkortasun ekonomiko-finantzarioa bermatuko duten finantzaketa-iturri pribatuen bilaketa eta administrazio publikoen inplikazioa dibertsifikatzea.
- 03.** Aranzadiko gizarte-oinarria biziberritzea eta haztea, eta bolondresen partehartzea bultzatzea elkartearen jardueretan
- 04.** Kudeaketa, dibulgazioa eta ikerketa proiektuen kalitatea bermatuko duen strategiaren garapenean aurrera egitea.

Kultura Zientifikoaren sustatzea, herritarren progresurako

Aranzadi Zientzia Elkarteak irabazi-asmorik gabeko elkartea da, bokazio publikoa duena eta herritarrei zerbitzua ematen diena. Alderdi horretan sakontzea da Zuzendaritza Batzordearen helburuetako bat.

Gure nahia da, zalantza une hauetan ere, gizarteari ikuspegi sortzaile batetik zerbitzua ematen jarraitzea inpartzialtasuna, zientzia eta profesionaltasuna oinarri hartuta. Eta horregatik, kanpoko presio-eragile independente gisa dihardugu ezagutza zientifikoa sortzen eta Euskal Herriko ondarearekiko eta ingurumenarekiko diskurtso arduratsua artikulatzen.

Gure bokazio publikoa indartzeko garaia da beraz, pertsona eta instituzioetara are gehiago hurbiltzeko garaia, Aranzadi ezinbesteko balio eraginkor bat izan dadin zientzian oinarrituriko eta naturarekiko begirunea duen etorkizuneko gizarte baten eraikuntzan

Ondorengo ekintzak proposatzen ditugu

1. EKINTZA

Zerbitzuen **egungo beharrei eta teknologia berriei** egokitzea:

1. Aranzadik bere bazkideekin, bazkide aktiboekin eta proiektuan parte hartu nahi duten kanpoko pertsonekin dituen **informazio eta komunikazio kanalak mantentzea eta sustatzea**.
2. **Webgune berria** mugikorretara egokitzea, gure jarduera islatzen duten **edukietara sarbidea errazteko**.
3. **Streaminga informazio tresna gisa eta prestakuntza jardueretarako** erabiltzea.
4. **Estatutuak egokitzea** teknologiak eskaintzen duen errealitate berriaren arabera.

2. EKINTZA

Ekimen pribatuaren laguntza ekonomikoa bilatzea **mezenasgoaren** eta Aranzadiren printzipio eta balioekin bat datozen erakundeen **inplikazioaren** bidez, **finantzaketa iturri osagarri** bat lortzeko.

3. EKINTZA

Gizartearentzat oro har (hezkuntza-sistema, herritarrak, elkarteak...) eta lanbidearentzat bereziki (erakunde zientifikoak, beste elkarte batzuk, etab.) interesgarria izango den **dibulgazio-programa bateratu** bat sortzea,

4. EKINTZA

Hainbat erakunderekin **lankidetzak akordioak eta hitzarmenak** mantentzea eta indartzea, eta berriak sustatzea, gure jarduera garatzeko erreferente izaten eta posizionatzen lagunduko gaituztenak.

5. EKINTZA

Aholkulari bolondres adituen batzordea eratzea, gai oso zehatzetan Zuzendaritza Batzordeari erabakiak hartzen lagunduko diona.

6. EKINTZA

Berriro ere **Batzorde Zientifikoa** bultzatzea, Zuzendaritza Batzordearen aholkularitza-tresna gisa, gizartearen estrategia zientifikoa taxutzeko.

7. EKINTZA

Bolondresak Aranzadiren zientzia eta dibulgazio jardueretan parte hartzera bultzatuko dituzten **dinamikak mantentzea eta indartzea**.

8. EKINTZA

Aranzadiren papera **erreferente independente gisa defendatzen jarraitu** erakunde publiko guztietan eta herritarren aurrean.

9. EKINTZA

Sailen arteko koordinazioa hobetzea, **eta** Aranzadiren administrazio eta kudeaketa alorrarekiko **komunikazioa indartzea**.

10. EKINTZA

Agintariekin lankidetzan **aritzea, proposamenak egitea eta inplikatzera**, lurraldearen ingurumen jasangarritasuna bultzatuko duten ingurumen-politikak garatzeko

11. EKINTZA

Jarduera zientifikoari eustea eta horretan aurrera egitea, **zorrotasunez, kalitatez eta gizarteari zerbitzua emanaz**.

12. EKINTZA

Zientzia herritarrei **transferitzeko ereduak sortzea**, neurri handi batean digitalizazioan oinarritutako ereduak.

13. EKINTZA

Talentua eta ezagutza kudeatzeko estrategia bat sortzea Aranzadi osatzen duen giza taldearekin.

14. EKINTZA

Euskararen normaltasuna bermatzea eta euskararen garapena bultzatzea beste hizkuntza batzuk baztertu gabe.

15. EKINTZA

Feminizazioa bultzatu eta babestea; izan ere, nahiz eta elkarte zientifiko honetako sailetan proiektu zientifikoek buru diren gero eta profesional emakume gehiago dauden, gure masa soziala desorekatuta dago oraindik. Errealitate horri aurre egiteko lan egitea.

16. EKINTZA

Kuoten politika aztertzea eta hezkuntza-sistemako eragileak eta gure gizartearen printzipio eta balioetara egokitu daitezken eta ekarpen sinbolikoa egin nahi duten beste profil batzuen sarrera ahalbidetzea.

Zuzendaritza Batzar berrirako hautagaitza



Laiene

Anabitarte González
43 urte

1

Irakaslea Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean, EHU.

Ekonomia eta kudeaketa profila. Jarraipen ekonomikoko lanetan eta plan estrategikoen ezarpenean laguntzea.

Ekintzailea, batez ere hainbat enpresa-proiekturen kudeaketa eta garapenean zentratutako ibilbide profesionala, bai lokalki, baita nazioartean ere, korporazio handietan, enpresa txikian edo enpresa-proiektu propioetan.



Itsaso

Andueza Fernández
34 urte

2

Eskura Zentroko Zuzendaria - Giza Eskubideen Pedagogia Baliabideen Zentroa

Profil soziala oso garatua. Jarraipen eta koordinazio lanetan laguntzea, batez ere bolondresekin.

Irakasle diplomaduna Euskal Herriko Unibertsitatean eta Gaitasunetan Irakaskuntzako Masterra Ramon Llull Unibertsitatean, hezkuntzari eta gizarte-partaidetzari estuki lotutako ibilbidea izan du eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan, Gipuzkoako Caritasen eta Eskura zentroan egindako lana nabarmendu behar da.



Javier

Cantera Depetris
77 urte

3

Zientzia Elkarteko kidea eta ABBko (Niessen) kalitate-arduradun ohia

Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren kudeaketan oso nabarmena den profila.

Ingeniari tekniko elektrikoa, erantzukizuneko lanpostuak izan dituena. AENOREko Normalizazio Batzordeko kide izan zen, eta ISO 9001 Kalitate Sistema martxan jarri eta kudeatzeaz arduratu zen. Ondoren, ISO 14001 ingurumen-sistemaren ardura ere hartu zuen, eta AENOREko ziurtapen-batzorde bateko presidenteordea izan da. Azkenik, ENACEk I+G Laborategia (ISO 17025) egiaztatzeke prozesua abian jartzeaz eta kudeatzeaz arduratu zen.



Eneko
Etxeberria Berezartua
49 urte

4

Abokatua eta Zuzenbideko irakaslea EHUn

Irakasleen profila eta harreman instituzionalak. Lurraldearen ezagutza instituzionala eta komunikabideetako ezaugarriak sustatzea.

Abokatu-ekonomialaria, batez ere aholkularitzan eta proiektuen zuzeneko zuzendaritzan zentratutako ibilbide profesionala duena, eta tokiko administrazio publikoaren kudeaketan ibilbide garrantzitsua duena.



Virginia
García Pena
41 urte

5

Astronomia Saileko zuzendaria eta teknikari soziokulturala

Dibulgazio profila, proiektu eta espazio kulturalen kudeaketa.

Teknikari soziokulturala, 2001etik dibulgazio zientifikoan lan eginez (astronomian bereziki) eta hainbat jarduera eta ekitaldi diseinatu eta garatuz. Hezitzaile gisa esperientzia eguneko zentroetan estimulazio kognitiboko jarduerak jorratzen.




Lourdes
Herrasti Erlogorri
61 urte

6

Irakaskuntza ertaineko irakaslea eta ikerlaria Antropologia sailean

Ikertzaile eta irakasle profila. Proiektuak koordinatu eta lan-taldeetaz arduratzeko lanetan ibilia.

Aranzadi Zientzia Elkarteko kidea 1980tik. Historiaurreko eta Antropologiako sailetako jardueretan parte hartu du aldian-aldian, eta ikerketa-proiektu ugari garatu ditu, bai giza aztarnen berreskurapenean, bai analisisian. Irakaskuntza Ertaineko irakaslea. Osteoarkeologian espezialista. Bere jarduerak Aranzadianan argitaratutako urteko memorietan jaso dira.



Jose Angel

Irigarai Imaz
77 urte

7

Medikuntzan lizentziatua, idazle eta poeta aktiboa herrialdeko kulturaren munduan

Ibilbide profesional artistikoa duen profil kulturala, hainbat ekimen eta elkartetan parte hartzen duena.

Pamiela etxeko argitalpen taldeko kidea, Ez Dok Amairu taldekoa eta Oteiza Fundaziokoa, Jorge Oteiza eskultorearen ondarea kudeatzeaz arduratzen dena. 2010ean ohorezko euskaltzain izendatu zuten. Eta Nafarroako Ikastolen Federazioaren garapenean lagundu du. Literaturan bere adar artistiko nagusia ensaioa, narrazioa eta bereziki poesia dira.



Paul

Mínguez-Olaondo
38 urte

8

Enpresak zuzentzea eta kudeatzea, finantzaketa lortzea, proiektuak kudeatzea eta negozioa garatzea.

Profil teknologikoa, enpresa kudeaketan espezializatua. Instituzio ezberdinekin harremanak mantendu eta sortzea.

Telekomunikazioko ingeniaria, beti ekintzailtzarekin eta negozio-ereduen azterketa eta garapenarekin lotuta egon dena. Hainbat enpresa-ekimenetan zuzendaritza-postuak betetzen ditu. Hainbat elkartetako kidea eta astronomia saileko kidea. Musika irakasle titulua atera zuen Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan.




Jokin

Otamendi Azurmendi
79 urte

9

Zuzenbidean lizentziatua eta Kutzako Administrazio Kontseiluko idazkari ohia

Ekonomia eta kudeaketa profila. Kudeaketa lanetan eta erakunde harremanetan laguntzea. Aranzadiko lehendakaria izan da azken urteotan. Kutzako Artxibo Historikoaren sortzailea. Donostiako Amassorrain Ikastolako zuzendaria eta presidentea ere izan da, eta gaur egun Gipuzkoako kodexak berreskuratzen, digitalizatzen eta grabatzen dihardu.



Rafael

Zubiria Mujika
68 urte

10

Enpresaren kudeaketa eta espeleologia saileko zuzendari ohia

Profil teknikoa eta kudeaketakoa, industria-horniduraren arloan ibilbidea duena. 1968tik aurrera espeleologia saileko kide egin zen eta zuzendari izan zen ere. Hainbat Zuzendaritza Batzordeetako kide eta lehendakariorde izan da Jose Miguel Larrañagaren garaian. Espeleologiaren arloan eta berriki arkeologian ikerketak egin ditu.

Ordezkoak:

- Francisco Etxeberria
- Joxepo Teres
- Arantza Aranburu
- Izaskun (Kakun) Orbegozo

2020 URTEKO AURREKONTUA

	2020 AURREKONTUA
1 Bazkide kuotengatik dirusarrerak	90.000,00 €
2 Salmenten zenbateko garbia	1.550.000,00 €
4 Zuzkidurak	-50.000,00 €
5 Beste ustiapen sarrerak	1.575.000,00 €
6 Langile gastuak	-1.970.000,00 €
7 Beste ustiapen gastuak	-1.173.000,00 €
8 Ibilgetuaren amortizazioa	-127.000,00 €
9 Finantziario ez den ibilgetu kapital dirulaguntzak egozketa	115.000,00 €
A) USTIAPEN EMAITZA	10.000,00 €
13 Finantza gastuak	-11.000,00 €
16 Narriadura eta finantza tresna salmenta emaitza	1.000,00 €
B) FINANTZA EMAITZA	-10.000,00 €
D) URTEKO EMAITZA	0,00 €